

III. FUNDAZIOAREN lehenengo ekitaldian garatuko diren jardunak.

FUNDAZIOAK lehenengo ekitaldian garatu beharreko jardunak dokumentu honen II. eranskineko aurrekontuan sartzen dira.

Dokumentu honen III. eranskinean horren partidak azaltzen dira.

Aurrekontuan ikusten den bezala, lehenengo ekitaldian baliabideak lortzea aurreikusi da ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ekarpenetik. Izan ere, dagoeneko kontuan hartuta daude, ekitaldi honetako aurrekontuan gorde direlako. Halaber, VITAL KUTXAK erabaki du lehenengo jarduketa programa honen finantzaketarako ekarpena egingo duela.

Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

3418

246/2009 ERABAKIA, maiatzaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da Burgeluko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari lotutako hiri lurzorua mugen aldaketa partziala.

Martxoaren 18ko 169/2009 Foru Aginduaren bidez behin-behineko onarpena eman zitzaion Burgeluko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari lotutako hiri lurzorua mugen aldaketa partzialari. Hiri lurzorua muga horiek azaroaren 5eko 662/2008 Foru Aginduaren bitartez onartutako planeamenduko arau subsidiarioen hirugarren aldaketa puntuala kontuan hartuta ezarri ziren.

Aipatutako arauaren xedapen zatiko 4. artikuluan, Burgeluko Udalarriaren berri emateko agindua eman zen. Agindu hori 2009ko martxoaren 20an bete zen eta udalak 2009ko martxoaren 25ean jaso zuen jakinarazpena.

Uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duenak, 11. artikuluan 4. paragrafoan udalarri hamabost egun aitortzen dizkio egoki deritzona jakinaraz dezan.

Epe hori igaro ondoren, Burgeluko Udalarri ez du inolako desadostasunik adierazi hartutako erabakiarekin.

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Burgeluko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari lotutako hiri lurzorua mugen aldaketa partziala. Azaroaren 5eko 662/2008 Foru Aginduak onartutako planeamenduko arau subsidiarioen hirugarren aldaketa puntualarekin bat etorritik egin zen aldaketa hori.

Bigarrena.- Aurrekoa gorabehera, kontuan hartuko da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 2. artikuluko b) idatz zatiko 1., 2. eta 3. puntuetan xedatutakoa, herriguneetatik kanpo hiri ondasun higiezinak hartutako lurzoruei dagokienez.

Hirugarrena.- Honako erabaki hau ALHAOn argitaratzea, bai eta lurralde historikoan egunkari salduenetan ere. Gainera, hamabost egunez jarriko da jendaurrean, interesdun orok egoki deritzen erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzen. Izan ere, Burgeluko udaletxeko bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 11. artikuluko 5. paragrafoan eta berau garatzen duen abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluko 1080/1992 Foru Dekretuak 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko maiatzaren 5a.- Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LOPEZ.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.- Ogasun zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

III. Actuaciones a desarrollar en el primer ejercicio de LA FUNDACIÓN.

Las actuaciones a desarrollar por LA FUNDACIÓN en su primer ejercicio son las que se enmarcan en el Presupuesto que se acompaña como Anexo II al presente documento.

En este sentido, se acompaña, como Anexo III al presente documento, una explicación de las distintas partidas del mismo.

Como puede observarse en dicho presupuesto, en este primer ejercicio está previsto obtener recursos, de la aportación de la DIPUTACION FORAL DE ÁLAVA. Las mismas ya han sido debidamente comprometidas mediante su reserva en el presupuesto del presente ejercicio. Asimismo, la CAJA VITAL ha acordado contribuir con una aportación a la financiación de este primer programa de actuación.

Acuerdos del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

3418

ACUERDO 246/2009, del Consejo de Diputados de 5 de mayo, que aprueba la modificación parcial de delimitación de suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, del término municipal de Elburgo.

Por Orden Foral nº 169/2009, de 18 de marzo, se aprobó con carácter provisional, la Modificación Parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Elburgo. La mencionada Delimitación de Suelo urbano se realizó recogiendo la Tercera Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento aprobadas por Orden Foral nº 662/2008, de 5 de noviembre.

En el artículo 4º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Elburgo, disposición que se realizó con fecha 20 de marzo de 2009, siendo recepcionada por el Ayuntamiento de Elburgo con fecha 25 de marzo de 2009.

La Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.

Habiendo transcurrido el citado plazo el Ayuntamiento de Elburgo no ha manifestado disconformidad alguna con la resolución adoptada.

ACUERDO

Primero.- Aprobar la Modificación Parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Elburgo, realizada de conformidad con la Tercera Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento aprobadas por Orden Foral nº 662/2008, de 5 de noviembre.

Segundo.- No obstante lo anterior, hay que tener en cuenta lo establecido por el artículo 2º apartado b) puntos 1, 2 y 3 de la Norma Foral nº 42/1989 de 19 de julio del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, para el tratamiento de los suelos ocupados por construcciones de naturaleza urbana, situados fuera de los núcleos de población.

Tercero.- El presente Acuerdo será publicado en el BOTHA y en los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico. Además se procederá a su exposición pública por un plazo de 15 días para que los interesados formulen las reclamaciones oportunas. La exposición pública se llevará a cabo en las Oficinas del Ayuntamiento de Elburgo, tal y como establecen el artículo 11 apartado 5º de la Norma Foral nº 42/1989, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y su posterior desarrollo reglamentario por Decreto Foral nº 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en los artículos 7, 8 y 9.

Vitoria-Gasteiz, a 5 de mayo de 2009.- Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.- Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.- Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.